

Zerkausia,
dagoen
bezala

Bere itxura
mantendu nahi dute ▶ 2



Angel Vicioso garaile izan da Bidaniako helmugan

TALDEKOAK ▶ Libertyko beste bi taldekiderekin batera iritsi zen bakarrik atzo helmugara

GOIATZ ▶ Gaur goizean Goiatzetik abiatuko da Euskal Bizikletako laugarren etapa Abadiñora ▶ 4



Lehen hiru sailkatuak Bidaniako helmugara iristen: Vicioso, Heras eta Gil, besoak altxatzen. OLAIA ESKITXABEL

TOLOSA ▶

Irazkiren
urtemugako
ekitaldi
nagusiak

Etorkinen janaria,
jokoak eta musika
izango dira gaur ▶ 3

ANOETA ▶

Urteroko
jaiak gaur
hasiko dira
herrian

Hamaika ikuskizun,
kontzertu eta afari
izango dira ▶ 6

ARESO ▶

Sokatira
taldea,
prest ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Gehigarri
berezia
HITZaren
harpidedun
berriei
zuzenduta

Gaur egun 7.500
harpidedun daude;
proiektua sendotzeko
harpidedun gehiago
behar dira ▶ 14

ondo para jaisten!

Izarti
txokolategia

Sortalde, 1 • ANOETA • Tel.: 943 65 19 93

**DIODO LASER BIDEZKO DEPILAZIOA
(LightSheer)**

ERAGINKORRA ETA ZIURRA

- Emakumezko zein gizonezkoentzat aproposa
- Tratamentu pertsonalizatua
- Lehen azterketa inongo konpromisorik gabe
- Deitu eta hartu ordua **ekainaren 11rako**

Estetikako Zentru Integrala

Maite

Calle Herreros - TOLOSA - 943 67 03 38

tratamendu eraginkorra
emaitzak nabari dira

Loatzo **MATRIKULAZIOA**
musika **04-05**
eskola **IKASTURTEA**

Musikaz gozatzeraz anima zaitez!

Epea: ekainak 1-7

Non matrikulatu: (goizez, 10-12)

ANOETA: ikastolan	IBARRA: kultur etxean
ADUNA: udaletxean	LARRAUL: udaletxean
ALTZO: udaletxean	VILLABONA: kultur etxean
ALEGIA: udaletxean	IRURA: udaletxean
ZIZURKIL: Atxulondon	

ESKAINITZA ZABALA:

musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

Informazio gehiago: 943 692619

HIRIGINTZA ▶

Zerkausiaren itxura mantendu behar dela diote herritarrek

Tolosarren artean egindako inkestaren ondorioak atera ditu Udalak: eraikinaren kanpoko itxura aldatzeak gatazka ekarriko lukeela dio; etzirako bilerara deitu du

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Udalak Alde Zaharreko espazio publikoa hobetzeko obrak jarri nahi ditu abian Zerkausia eta Solana kalea eraberritzeko lanekin. Hasierako helburua inguru horretan egiten den azokaren egoera hobetzea da; aldi berean, leku hori bilgune bilakatu nahi du tolosarren tzat. Udalak «interesa dutenen edota gune horretan egingo diren aldaketek eragiten dieten herritarren ahotsa entzun nahi du», eta gai horren inguruko iritziak eta iradokizunak jaso. Horregatik jarri du herritarrek proiektu horretan parte hartzeko prozesua abian; inkesta bat egin zuen duela gutxi, eta inkesta horren emaitzak biltzen dituen txostena egin du orain.

192 lagunenean erantzunak jaso ditu Udalak guztira —baita Alde Zaharreko auzo elkarteak emandakoa ere—, eta horietatik 21 haien produktuek Zerkausian saltzen dituzten base-rritarrek bidalitakoak dira. Udalak hiru mila galdetegi banatu zituztenez, %6,36k erantzun dio inkestako galderei. Jasotako erantzunetatik 77 lagunek helarazi dizkiete udal ardura-dunei haien izen-abizenak, eta horietatik 41 Alde Zaharrean bizi direla ikusi ahal izan dute.

Jasotako erantzunak askotarikoak dira, baina zenbait esparrutan adostasun maila altua lortu dute. Parte-hartzaileen gehiengoak uste du premiazkoa dela Zerkausiari erosotasun handiagoa ematea tolosarren bilgune bilakatu bada, eta bere ohiko erabilera-erako estalkia egokitu behar dela irizten diotenak ere asko dira: 102 lagun, hain zuzen. Ala-



Zerkausian egiten den azokaren egoera hobetu nahi du Udalak. HITZA

baina, Solana kalean bizi direla esan dutenetatik 9k (%60) estalkia eraberritzearen kontrako iritzia dute, 4k (%26,66) aldekoa eta 2k (%13,34) noiz-behinka erabiltzearen aldekoa. «Iritzi ezberdintasun horrek gai honi buruzko gatazka sor dezake; lehenbailehen identifikatu behar da, beraz, konponbidea bilatzeko», diote Erretengibel elkarte arduradunek.

Erantzun dutenen ardurak dio, bestalde, Zerkausitik pasatzen direnen arazoa konponduko balitz eraikina tolosarren bilgune bihurtuko litzatekeela, Zumalakarregi kalearen eta Nafarroako zubiaren arteko lotura konpondu beharra dagoe-la, Solana kalea eta Zerkausiarren inguruak gune bakar bat bezala antolatuta behar direla eta baldin eta beste erabilera batzuk gehitzeko badira, erai-

kinaren kanpoko irudia eta itxura aldatuko duten obrak egin daitezkeela.

Eraikinari, itxura bera

Erantzun dutenek garrantzia handiagoa ematen diote eraikinak eskaini behar duen erosotasunari eta gunea animatzeko antolatuko diren jardueri eta erabilerei eraikinaren beste edozein balizko eraberritzeri baino. Eta eskari horiek guztiak behar bezala gauzatzeko, Udalak «jarduera horiek sortzeko eta mantentzeko gai izango den talde teknikoak eratu behar du». Horren harira, beharrezkotzat jotzen du Erretengibelek Udalaren jardura taldea, herritarrek eta eraikuntza proiektua egingo duen arkitektoa lankidetzan aritzea programa funtzional bat zehaz-

teko; hau da, eraikinak izango dituen erabilerak eta horietako bakoitzak hartuko duen lekua, zehazteko.

Egingo den proiektuak, gutxienez, eraberritze lan batzuk izan behar ditu udal arduradunen aburuz. «Erosotasuna eskaini behar du eraikinak (fatxadako balkoiak itxiz), argiak gehitu behar ditu, egungo eserlekuak kendu eta gune libre gehiago eskaini. Azokaren instalazioak hobetu egin behar dira eta estalkia terraza gisa erabiltzeko behar diren irtenbideak bilatu behar dira». Horrez gain, Zerkausiak eta Nafarroako zubiak eta Zumalakarregi dituzten loturak hobetu behar direla irizten diote udal arduradunek: adibidez, «Solana kalea eta Zerkausia gune bakar bat bilakatu behar da, edota gutxienez kale horrekiko lotura hobetu». Edonola ere, «argi eta garbi eduki behar da, edozein obra eginda ere, ez dela aldatu behar eraikinaren kanpoko itxura ez eta ezaugarri nagusiak ere: fatxada, dorreak, zutabeak... aldaketa horrek kontrako jarrerak piztuko litzatekeela, gutxienez, inkestari erantzun dioten herritarren artean».

Proiektuaren ondorioak aurkezteko, iritzi ezberdinak eztabaidatzeko eta interesa duten herritarrekin lan taldeak eratzeko bilera irekiak egingo ditu aurrerantzean Udalak. Lehenengo, astelehenean izango da, 20:00etan, Udaleko udalbatzar aretoa. Inkestaren emaitzen eta aurrera begirako urratzen berri emango da bertan.

Osatuko dituzten lan taldeak hiru motatakoak izango dira: prozesuaren segimendua egi-

ONDORIOAK ▶

Adostasun altukoak

Erabilera

Erabilera apala	%86,59
Merkatua+beste erabilerak	%91,78
Estalkiaren ohiko erabilera bai	%67,75

Eraikina

Eraikin osoa mantentzea	%94,34
Eraikinaren zati bat uztea	%81,48
Ibaira ematen duen fatxada bai	%98,48
Dorreak mantentzea	%92,22
Eraikinaren zutabeak uztea	%84,93

Erantzun alternatiboak

Ez erabiltzearen balizko arazoak

Erosotasun gutxi	%35,47
Ez da jarduerarik egiten	%17,95
Pasadizokoak dabilta	%9,83
Lotura txarrak	%8,55
Zikinkeriak	%7,26
Beste leku batzuk nahiago	%5,98
Kokapen txarra	%4,70
Argi gutxi	%1,28
Bestelako arazoak	%8,98

Balizko beste erabilera batzuk

Haurren jolasgunea	%37,39
Atsedengunea	%19,82
Herriko plaza	%13,96
Kafetegia	%7,21
Solana kalearekin lotura	%4,50
Ikuskizunak	%3,60
Hirugarren adinekoak	%2,70
Terraza bat egokitzea	%2,25
Beste batzuk	%8,56

Beste erabilera batzuk emateko

Fatxadako balkoiak ibxi	%17,46
Garbitasuna	%15,08
Helbideak hobetu	%10,71
Argia gehitu	%9,52
Erosotasun handiagoa	%9,13
Komunak jarri	%7,94
Eraberritze txikiak	%4,76
Eserlekuak kendu	%4,37
Terraza egokitu	%3,97
Beste batzuk	%12,30

teko talde zabal bat, udal teknikari taldearekin batera jardura berriak diseinatzeko parte hartuko duen taldea eta gatazka —terrazaren modukoak, esaterako— konpontzeko taldea. Bakoitzak funtzio ezberdina izango du, eta aurreproiektuetan aukeratzeko den oinarriarekin proiektu bat diseinatu dute. Segimendua taldeak eta Udaleko gobernu taldeak emango dute egin beharrekoaren azken erabakia.

hilberriak ▶



Ina
VI. URTEURRENA



Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia, burruka hortan bizi da eta, hori du bere egia. Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu, jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkitu lege berriak noizbait erditu, hortan jokatzu bizia...

Bihar, 13:00etan ekitaldia monolito aurrean

Lizartzako ezker abertzaleak

LIZARTZA, 2004ko ekainaren 5a



Leo Esteban Nieto
JAUNA



Atzo hil zen, 53 urte zituela

Mendia maite zenuen eta mendian gelditu zure irrifarra ez dugu inoiz ahaztuko

Zure ilobak: Lander eta Mikel, Koldo eta Urtzi, Jon eta Illart, Irati, Laia, Iker eta Clara, Xabier eta Ekain

oharra ▶ gorputz bella Tolosaldeko Tanatorioan egongo da, gaur 11:15 arte

TOLOSA, 2004ko ekainaren 5a



Leo Esteban Nieto
JAUNA



Ihes beteaz zilegi balitz nunbait balego bakea ni ez nintzake lur hotz batetan aldatutako landare sustrai gabea

Tolosako ezker abertzaleak

TOLOSA, 2004ko ekainaren 5a

HEZKUNTZA ▶

Bihar, Laskorain Ikastolaren eguna ospatuko dute

Bihar ospatuko du Laskorain Ikastolako ikasle, guraso eta irakasleek ikasturte amaierako jaia jarduera desberdin eta dibertigarren inguruan. Goizean bizikleta ibilaldia egingo dute Tolosan. Ondo joko eta emanaldiak izango dira: abesbatza, aerobik... Irakasle eta guraso batzuk prestatutako bazkariaren ondoren Kazkabarra taldeko begiraleek jokoak izango dira txikiak eta ondoren dantzaldia Karraxi taldearekin.

PRESOAK ▶

«Sakabanaketaren ondorioz» hil da Leo Esteban

Herenegun iluntzean hil zen Leo Esteban Nieto. «sakabanaketaren ondorioz», Etxerat preso politikoaren sostengu taldearen arabera. Errepide istripua izan zuen 1999an. Esteban Esteban Nieto anaia zena Puerto de Santa Maria-ko espetxean bisitatu eta Euskal Herrirako bidean zela. Zango bat galdu eta oinaze handiak utzi zizkion. 21 ebakuntza egin zizkioten istripua izan zuenetik. Esteban Esteban Nietok minbizia zuen, urte asko pasatu zituen espetxean, eta libre utzi eta hilabete gutxira hil zen. Gaur 11:30etan karabana egingo dute Tolosako beilegitegitik Donostiako Errekaldekora eta bihar azken agurra 12:00etan Larraitzen.

PILOTA ▶

HITZA txapelketan kadeteen emaitzak

Asteazkenean jokatu ziren Bidanien kadete mailako partiduetan finalerdietan jokatu duten lehen bi pilotari ezagutu ziren, Otxandorena eta Koldo Galarraga. Lehenak Legarretari 18-5 irabazi zion, ustekabea emanez. Bigarrenak berriz, 18-10 irabazi zion Villarori. Beste bi finalerdietako jokalariek hurrengo astean ezagutuko dira. Beste bi partiduetan Iturriotzek 18-6 irabazi zion Yeregiri eta Telletxeak 18-0 Lopez de Urbinari, ez baitzen agertu.

GIZARTEA ▶

Irazkiren urtemugako ekitaldi nagusiak gaur izango dira

Etorकिन gastronomia ezagutu ahal izango da Kultur Etxean eta haur jokoak eta musika Plaza Berrian

JOXEMI SAIZAR

Astean zehar izandako mahai-inguru eta hitzaldien ondoren, asteburuan bukatuko dira Irazki kulturazindun elkartearren lehen urtemugako ekitaldiak. Gaur izango dira ekitaldi nagusiak. Goizean hainbat produktibitate gastronomiko dastatu ahal izango dira: Gineako ebafoa, Saharako cus-cus, Marokoko tea, Argentinako enpanadak, Brasilgo cojinha, Mexikoko pozole, Errepublikako Dominikarrek ogi budina, Euskal Herriko euskal tarta eta txistorra, Ekuadorreko ceviche, Venezuelako arepas, Kolonbiako platan tartak eta Peruko papas a la guancaina. Bi euroko prezio sinbolikoa jarriko da dastaketan.

Arratsaldean hainbat joko eta piniata izango dira haurrentzat eta gauean bi musika taldek jotzen duten bitartean mojito, ron, pitarra, pisco eta beste-lako txupitoak eskainiko dira.

Astea bukatzeko, bihar Irazkiko kide eta lagunen arteko bazkari multikulturala izango da.



Asteazkeneko mahai-ingurua interes handiz jarraitu zuten. JOXEMI SAIZAR

EGITARAUA ▶

GAUR

Gastronomia dastaketa.

Herrialde desberdinetako produktuak. Kultur Etxean 11:30etan.

Haur jokoak. Herrialde desberdinetakoak. Plaza Berrian 17:00etan.

Kontzertua. Tahuma (Kuba) eta Jum-jum (Afrika). Plaza Berrian 23:00etan. Hainbat herrialdetako txupitoak eskainiko dira.

BIHAR

Bazkaria. Multikulturala. Eskolapioetan 14:00etan.



Irakasleak Eskola Agenda 21-i buruz

ASTE BERDEA ▶ Eskola Agenda 21 izan zuten atzo goizean mintzagai EAE osotik etorritako 120 irakasle Gorosabel Zaharrearren. Jokin Bildarratza alkatea, Konrado Mugerza

Hezkuntza Berrikuntzako zuzendaria eta Josu Erkoreka Biodibertsitatea zuzendaria izan ziren hizlari eta ondoren taldeka bildu ziren irakasleak mintegietan. JOXEMI SAIZAR

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun zentroa: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald:461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion Klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. R. Morant. Zabalarreta 1,

(Tolosa). 943 67 38 49

Larraia, Elbarren 95 (Leitza).

Telefonia 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22

anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUA

Taberna. Orexako taberna

alokatzen da. 943 68 20 29.

SALGAI

Zakurkumeak. Setter arrazako

zakurkumeak salgai 200

eurotan. 943 67 45 56.

BIDEGOIAN ▶ KIROLA

Angel Vicioso irabazle atzo Bidanian

Helmugara Liberty taldeko beste bi txirrindulariekin batera iritsi zen

OLAIA ESKITXABEL

Liberty taldeko Angel Vicioso irabazi zuen atzo Bidanian amaitu zen etapa; garaipena ezezki lidergoa ere eskuratu zuen. Erregulartasunean ere lehenengo postuan jartzea lortu zuen. Viciosoren ondotik, beste bi taldekidek zapaldu zuten helmuga; bigarren postuan, Roberto Heras sartu zen eta hirugarren, berriz, Koldo Gil. Liberty taldea sailkapen orokorreko lehenengo postuan kokatu zen horrela.

Aguraindik abiatutako etapa lau ordu eta zazpi minututan burutu zuten Libertykoek; Bidaniara 17:40ak aldera iritsi ziren. Atzetik, hogeita sei segundu doctara, lau txirrindulariez osatutako taldetxoa iritsi zen:

Haimar Zubeldia, Laiseka, Del Olmo eta Arreitunaindia.

Vicioso liderrak Zubeldiari ateratako denbora kontutan hartuta zaila izango zaio Zubeldiari erlojupekoan garaipena lortuta Euskal Bizikleta irabaztea.

Hirukotea Errezil aldera

Bidegoiandik lehenengo aldiz, 16:40ak aldera pasa ziren. Alvaro Gonzalez de Galdeano (Liberty Seguros) buruan zutela La Boulangerie eta Fassa Bortolo taldeko beste bi txirrindulari zihozten ihes eginda. Horrela abiatu ziren Errezil aldera.

Ondoren, Vicioso eta Euskalteleko Roberto Laiseka biak ihes eginda abiatu ziren Beizama mendatean gora, eta



Bidegoian zeharkatu ondoren, Errezil aldera abiatu ziren bixirrindulariak. O.ESKITXABEL

Euskaltelekoak eraso jo zuen. Viciosok, ordea, Roberto Heras eta Koldo Gil taldekideen laguntzarekin Laiseka, eta hain inguruan zen Zubeldia atzean uztea lortu zuen.

Bihar bi saio egingo dituzte txirrindulariek; goizean Goiazetik abaiatuko da Euskal Bizikletako laugarren etapa. 10:20ak aldera abaituko dira Abadiño aldera, 82,5 kilome-

troko ibilbidea egingo dute. Arratsaldean, berriz, Elorrio eta Matiena artean izango da erlojupekoa. Bihar amaituko da aurtengo Euskal Bizikletako edizioa.



Irabazleen ondoren helmugara iritsitako laukotea. O.ESKITXABEL



Xakea sustatzeko jarduerak bultzatuz

ANOETALDEA ▶ Anoetako eta Irurako udalek xakea sustatzeko bi erakustaldi antolatut zituzten maiatzerako; maiatzaren 22an eta 29an egin ziren erakustaldi horiek eta «bi egun horietan haur dexente gerturatu ziren Tolosako Xake Elkarteko begiraleen laguntzaz xakean jolastera», azaldu dute udal ordezkariak. Guztira, 53 haurrek eman zuten izena; parte-

hartzaileren artean, jokatzen zekitenak eta fitxen mugimendua ezagutzen ez zutenak zeuden. Bakoitzak, bere mailan, aritu zen praktikatzan. Erakustaldiek izan duten harrera ikusita, Uda Kanpainaren barruan gehiago praktikatzeko aukera izango dute gaztetxoek. Erantzun ona izatekotan, udalek urritik aurrera *Xakearen txokoa* sortzea aztertuko dute. HITZA

ARAMBURU
Salgai (Iruera). Dugitec-a salgai Irurak, Etxezarreta kalean. Alokatzeko (Sakoa). Bi logela dituen apartamentua. Igurrikoaren sarr. Irundantza gerta. Alokatzeko (Tolosa). Denda berria egokitua. Begoen kaldaa alkatari de Laskorain kalean. Alokatzeko (Tolosa). 145m²-ko bulego Larrañendi kalean. Alokatzeko (Tolosa). Garaie Laskorain kalean. Garaie Irurak. Alokatzeko (Iruera). Garaie Hilek Gai Anguru Espainetzaan.
943 65 17 13 / 677 460 916

VW GOLF IV. 1.6 SALGAI
Hig Line, extrak: ESP, CD-a
OKASIOA 1.350.000pta
mug.: 670 217 471

IRURAN
ETXEZARRETA KALEAN
GARAJEA SALGAI EDO ALOKAIRUAN
mug. 680 240 805

IBARRA ▶ MENDIA

Gorritira mendi irteera antolatu du HaitzetanRajuk

Ekainaren 13an egingo da eta osteguna arte dago izena emateko epea; bazkaria eta txalapartariak izango dira

DANI GIBELALDE

HaitzetanRaju mendi taldearen eskutik, aurten ere egun eder bat igarotzeko aukera izango da Ibarrik Gorritira egingo den mendi irteeran. Ekainaren 13an, igandez izango da irteera. Europako hauteskundeak direla eta, goizeko hamarretan irteera erabaki dute antolatzaileek, bozkatu nahi duenak ere joateko aukera izan dezan. Herriar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte HaitzetanRajukoek ibilaldira, «giro onean egun on bat pasatzeko».

Ibarrik plazatik abiatuko dira parte-hartzaileak. Ibilaldia oso lasaia izango da, lau ordu ingurukoa, eta Gorritin bazkaria prest izango dute. «Ez nolana nahiko bazkaria gainera, arku-mea jateko aukera izango baitugu, sagardo eta ardo freskoaz lagunduta. Giroa alaitzeko, Sudupe eta Baxerrik beraien txalaparta erakustaldia ere eskainiko digute. Hala, lagun giroan barre ugari botatzeko aukera izango dugu».



HaitzetanRaju mendi taldearen aurreko irteera bat. HITZA

Etexera bueltatzeko autobusa edo autoak izango dituzte parte-hartzaileek. «Beraz, ez dago aitzakiarik, izena eman ezazue

osteguna, hilaren 10-a baino lehen Ibarrik Atari eta Zubiaurre, edo Tolosako Denak eta Raku tabernetan».

MENDI IRTEERA ▶

EKAINAK 13

Ordua. 10:00etan.

Lekua. San Bartolome plaza.
Bazkaria. Gorritin, arku-mea, sagardo eta ardo frexkoaz lagunduta.

Itzulera. Autobusez.

Prezioa. 18 euro ordainduko dute langileek; langabetu eta ikasleek 12.

Izen-ematea. Osteguna arte Ibarrik Atarin eta Zubiaurren edo Tolosako Denak eta Raku tabernetan.

LIZARTZA ▶ OMENALDIA

Asteburuan omenaldi ekitaldiak Ina Zeberiori

Bihar Lizartzan izango dira ekitaldiak; Arnaldo Otegi hitzaldia emango du bertan

D. GIBELALDE

Sei urte dira Iñaxi Zeberio Arruabarrena Ina Lizartzarra hil zuela Ertzaintzak, eta asteburuan omenaldi ekitaldiak egingo dizkiote ETako kide zenari (gaur Gernikan eta bihar Lizartzan).

Esan bezala, gaur Gernikan, Ina eraildako tokian omenaldi egingo diote. Besteak beste, txalapartariak, bertsolariak, hizlariak... izango dira bertan.

Biharkoan Lizartzan izango dira ekitaldiak. Lehenik Axurdario mendian egingo diote Zeberiori herritarrek ekitaldi xumea, eta eguerdian omenaldi egingo diote haren omenez herrian dagoen monolitoaren aurrean. Txalapartariak, bertsolariak eta dantzariak ez dira faltako omenaldian, eta Arnaldo Otegi hitzaldia eskainiko du.

Gernikan, 1998ko ekainaren 5ean hil zuten Ertzaintzak tiroz Ina Zeberio. Espainiako epaitegi iturriek orduan adierazitakoaren arabera, «Bizkaia komandoa desegite operazioa» egiten ari zirela hil zuten Ertzaintzak, «ETako kidea tirokatzen hasi zenean». Gernikako Pablo Picasso ka-

OMENALDIA ▶

GAUR

13:00. Gernikara bidaia. Omenaldia Ina eraildako tokian. Txalapartariak, bertsolariak, hizlariak... izango dira bertan.

BIHAR

09:00. Mendi irteera Axurdarioa.

13:00. Omenaldia monolitoaren aurrean. Txalapartariak, bertsolariak, dantzariak izango dira. Era berean, Arnaldo Otegi hitzaldia emango du.

leko etxebizitza batean egin zuten Ertzaintzak operazioa.

Ondorengo egunetan omenaldi ugari egin zizkioten Lizartzarari Gernikan eta Lizartzan. Zeberioaren sorrerian ehunka lagun bildu ziren azken agurra emateko, eta mobilizazio jendetsuak egin ziren Tolosaldean. Amnistiaren aldeko batzordeak greba orokorrerako deia egin zuten operazioa salatuz, eta jarraipen zabala izan zuten.



10 bidaia zozketan

K a r i b e
T u n i s i a
I t s a s b i d a i a
D u b l i n
F i t e r o

Ekainaren 12tik aurrera



Laguntzailea:

Euskaldunok behar dugun **berria**

ANOETA ▶ JAIK

Heldu dira herriko jaiak!

Gaur hasi eta hurrengo igandera bitarte, hamaika ikuskizun, kontzertu eta afari izango dira Anoetan egunotan

GARAZI AZKUE

Uda badator, eta harekin betera eskutik baita festak ere. Tolosaldeko lehenengotakoak dira Anoetakoak.

Gaur emango zaie hasiera festei. Aurtin izango da non hautatu, festa ofizialeko egitarauaz gain, herriko zenbait taldek festa alternatiboak antolatu baitituzte.

Festa alternatiboetako egitarauko ekintzak, osoki, txosnagunean egingo dira.

Asteburu honetan izango dira lehen ekintzak: pilota partidak, eta musika alde batetik, eta herriko hiru bikoteren arte-

ko sega apustu handia beste-
tik. Gauean, plazan, DJ Bull-ek jarriko du giroa. Eta txosnagunean, Selekth Sound System-en *reagge* eta *hip-hop* doinuak entzun ahaliko dira.

Plazan izango diren ekintzen artean, Dikers, Moted eta Eraso taldeen kontzertu erraldoia da azpimarratzekoa. Eta txosnagunean izango diren ekintzen artean, I. Kantzontziko eta Kule-ro Lasterketa ageri da.

Festek hurrengo igandera bitarte iraungo dute, ekainaren 13ra arte. Hala ere, Sanjoanetan ere izango da zer ikusi eta zertan parte hartu Anoetan, hilaren bukaeran.



Txosnagunean eta plazan izango dira festetako ekintza gehienak. HITZA

EGITARAUA ▶ EGITARAU OFIZIALA

Anoetako Udalak prestatutako egitaraua.

EKAINAK 5, LARUNBATA

10:00. VII. Eskuzko Pilota Herri Txapelketa. Finalak.
16:30. Oiarzabal eta Urkolaren oroimenezko txirridulari lasterketa.
23:00. DJ Bull: Disko festa.

EKAINAK 6, IGANDEA (DANTZARI TXIKI EGUNA)

10:30. Mikel Garcianen oroimenezko Herri Krosa.
11:00. Txistularien kalejira.
11:00. Xiba taldeak antolatutako Euskal Herriko Herrien arteko I. Topaketa.
17:00. Villabona, Zizurkil,

Alegia, Beasain, Irura eta Anoetako dantza taldeen emanaldia herriko plazan. Ondoren, merienda.
19:30. Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua plazan.

EKAINAK 9, ASTEAZKENA

18:30. Sardina jatea herriko plazan.
18:45. Loatzo musika eskolako txalapartariak kukuaren etorrera iragarriko dute plazan.
19:00. Herriko plazan jaien hasiera: pregoia, txupinazo, kukuaren jaitsiera eta ume eta gazteboen danborrada.
20:30. Zirika musika taldea.

EKAINAK 10, OSTEGUNA (UMEEN EGUNA)

10:30. Jokulandia ume eta gazteboentzat parkea.
11:00. Kalejira Loatzo musika eskolako soinu-joleekin.
11:30. Gorritiren jaialdia plazan.
16:00. Jokulandia ume eta gazteboentzat parkea.
19:00. Buruhandi eta erraldioen kalejira txistulariekin.
20:00. Etxabe anaia.

EKAINAK 11, OSTIRALA

11:00. Herriko jubilatuen arteko toka txapelketa plazan.
11:00. Kalejira Loatzo musika eskolako soinu-joleekin.
16:00. Kulki joku tradizionalak plazan.
19:00. Ume eta helduen play-back-a plazan.

22:30. Bertso musikatuak frontoian.
00:00. Txalapartaldi nagusia plazan.
Ondoren. Brigantya taldea.

EKAINAK 12, LARUNBATA

11:00. Buruhandi eta erraldioen kalejira, Anoetako txistulariekin.
12:00. Txalapartaldi librea plazan. Ondoren hamaiketako.
15:30. Mus txapelketa herritarrentzat, Ateagak antolatuta.
17:30. Txokolate jatea, Ateagak antolatuta.
18:00. Denbora antzerki taldearen *Gaixotzea ez da txanba!* pailazok frontoian.

19:00. Tolosaldeko Bakailaoa saltsa berdean VI. lehiaketa.
20:30. Herri afaria frontoian.
23:30. Kontzertu erraldoia plazan: Moted, Dikers eta Eraso.

EKAINAK 13, IGANDEA

11:00. Anoetako txistularien kalejira.
12:00. Pilota partidak pilotalekuan.
12:00. Sagardo dastaketa.
17:30. Herri kirolak.
19:30. Pasaiaiko Alkartasuna dantza taldearen emanaldia plazan.
22:00. Irailerako 6 musika taldearen emanaldia.
23:00. Zezen suzkoa.
Ondoren. Irailerako 6 taldearen kontzertuak jarraituko du.

EGITARAUA ▶ JAI ALTERNATIBOAK

Ekintza guztiak txosnagunean izango dira.

EKAINAK 5, LARUNBATA

10:00. Kalejira segalariekin plazatik Argindegiko zelaira.
10:15. Sega apustua: herriko hiru bikoteren artean lehia.
23:00. Selekth Sound System-en eskutik hip-hop kontzertua.

EKAINAK 6, IGANDEA

10:00. Herriko baserritarren, artisauen eta artisten azoka eta lanabes zaharren erakusketa herriko trikitilarietara.

11:00. Xibak antolatutako Euskal Herriko herri kirol txapelketa.
20:00. Erromeria Beñat eta Lierni trikitilarietara.

EKAINAK 9, ASTEAZKENA

18:30. Festa alternatiboaren hasiera: txupinazo alternatiboa, baztertutako zinegotzien pregoia, trikitilari eta txalapartariak.
19:00. Kontzentrazioa udaleku aurrean: *PNV/EA: urtebete anoetarron eskubideak urratzen* lemapean.
Ondoren. Trikipotea.
23:00. Musika emanaldia

herriko Disko Jartzaileen eskutik.

EKAINAK 10, OSTEGUNA (DISFRAZ EGUNA)

16:00. Ume jokoak.
17:00. Pailazoak.
Ondoren. Buruhandiak herriko txistulariekin.
20:00. Tortila txapelketa.
21:00. Herri afaria: kostila jatea.
23:00. Ezein herriko taldearen eskutik musika emanaldia.

EKAINAK 11, OSTIRALA

19:00. Sagardo dastaketa

bertsolari, trikitilari, albokari eta txalapartarietara alaiturik.
21:00. Bertso afaria: Amets Arzallus eta Sustrai Kolinarekin.
Ondoren. Manifestazioa herriko kaleetan zehar *PNV/EA, anoetarron eskubideak errespetatu* lemapean.
23:00. R, Ileon eta Gaizkiñe taldeen eskutik kontzertua.
Eguna Argitzean. I. kantzontzilo eta kulero lasterketa.

EKAINAK 12, LARUNBATA (GAZTEEN EGUNA)

14:30. Gazteen bazkaria.

18:00. Gazteen kalejira herriko kaleetan zehar.
21:00. Herri afaria.
23:30. Gazteen dantza emanaldia.
24:00. Nekin taldearen musika emanaldia.
21:00. Herri afaria.

EKAINAK 13, IGANDEA

16:30. Mus txapelketa eta toka txapelketa.
18:00. Poteoa txarangak alaiturik.
19:00. Danborrada herriko kaleetan zehar.
21:00. Danborradan parte hartzen duten guztiarentzat afaria izango da Kuku elkartearen.

EUSKARA ▶

Kontseiluak deitutako manifestazioa

Euskara Batzordeak dei berezia egin du gaur arratsalderako, 17:00etatik aurrera Iruñean burutuko den manifestazio nazionalen parte hartzeko. Ekimen hau Kontseiluak deitutakoa da eta *Hizkuntza eskubideak, denon konpromisoa* lemapen burutuko da, Iruñeako Golem zinetetatik abiatuta. Bukaera, berriz, Gaztelu Enparantzan egitekoa bazen ere, Iruñeako Udalak ezarri duen debekua dela eta, Karlos III.a etorbidean emanen zaio amaiera ekitaldiari. Eta horretarako ere dei berezia bezain bitxia egina dago: norberak irriti aparatua eramatea. Jakina denez, Udal horrek berak megafonia ekiporik erabiltzerik debekatu egin baitu, eta horri aurre egiteko Euskalerrri Irratikoez zuzenean emanen dute manifestazioaren berri eta horrela entzun beharko du han irakurriko den komunikatua bertara biltzen denak.

Iruñeako Udalak, nonbait, saskibaloi partidu batzuk antolatu ditu Gaztelu Enparantzan eta hauek ez omen dute inolako debekurik jaso.

LEITZA ▶

Aurrera KEak batzordea berritzeko deia

Gaur iluntzeko zazpiak eta erdiean da batzarrerako lehen-dabiziko deialdia eta bigarrena berriz, iluntzeko zortzietan. Esan bezala, elkartean batzordea berritu nahian ari dira eta bere bazkideei deialdi berezia egin diete, bertan parte har dezaten eskatuz. Egungo batzorde hau 1999. urtean sartu zen lanera eta dagoeneko aldaketa emateko garaia dela iritzia diote eta beste talderen bati utzi lekukoa. Horretarako hainbat saiakera egin badituzte ere, ez da inor aurkeztu. Gaurkoa azken saiakera dela erabaki dute: batzordea berritu edo bertan behera geldituko omen da dena.

LEITZA ▶ KIROLA

Belate-Leitza ibilaldia bihar egingen da

Bihar igandea, goizeko zortzietan abiatuko dira herriko plazatik, Belate-Leitza zeharkaldia egitera. Orokietaraino autobusez joan dira eta handik ekin ibilbideari. Antolatzaileen esanetan, ibilaldia luzea da, zortzi-hamar ordukoa eta franko ongi prestatuta egon behar da zeharkaldi hau egiteko, gutxienez ibiltzen zaildua. Edozein moduz ibilaldi osoa egin nahi ez duenak edo norbait ezinean aurkituko balitz, erdibidean, Gorostietan zehazki, autobusa hartzeko aukera ere izanen omen luke. Puntu horretaraino lauzpabost ordutako ibilaldia da baita ere. Belatetik Leitzarako bide horretan, punturik garaienak, Begaña (1.104 metrotara), Putzuetako gaina (1.061 metrotara) eta Irumugarrieta (1.044 metrotara) dira, besteak beste. Desnibel aldaketa bortitziak ez egonagatik, luzea da Izena hogei lagunek eman omen dute. Irteera hau Mendibil Mendi Taldeak antolatu du eta maitzerako iragarritza bazegoen ere, herrian egin berri duten Kultur Astea dela eta atzeratzea erabaki zuten bere garaian. Ekainerako berriz, Piriniotara prestatuko dute irteera; antolatzaileek ez dute oraindik nora joango diren erabaki, eta aurrerago zehaztuko dutela esan diote HITZARI.

ARESO ▶ KIROLA

Sokarekin indarrak neurtzen

Negu guztian prestatzen aritu ondoren, orain fruituak jasotzeko tenorea iritsi da



Aresoko Soka Tira taldea prestatketetan. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Aresoko Soka Tira Taldeak bihar ekinen dio lanari, jendaurreko lanari zehatz esateko, Euskal Herriko Lur Gaineko eta Zortzinakako Soka Tira Txapelketaren baitan. Nuarben jokatu den lehen-dabiziko jardunaldian bertan. Taldeak arratsaldeko

14:00etarako gerturatu beharko du bertara, izan ere orduantxe egingen baita pisaketa. Saioa beranduxeago izanen dute, arratsaldeko 17:00tan.

Aresoko Soka Tira Taldeak 1994. urtean eman zuen txapelketarako urratsa eta orduz geroztik makina bat igurtzi eman diete sokari. Egun hamahiru lagunek osatzen dute

taldea, mutilak dira guztiak. Negu guztian zehar lanean aritu dira, prestateta lanetan: egunero burutu dituzte entrenamenduak. Astean hirutan sokarekin, bai elkarren aurka eta bai txirrikarekin ere; eta beste hirutan gisakoa landu dute, neguan gimnasioa ariketak egin badituzte ere, azken boladan, eguraldia ondu duenean, laisterka ibiltzen dira auspoa egiteko.

Hala ere gehien kostatzen zaiena pisuari eustea omen da «bakoitzak badakigu zenbat kilo izan behar ditugun zehatz eta horri kontu beharra daukagu. Jan gabe ez baina, gutxi janenez ere egoten gara eta...» diote.

Orain, azken lau urte hauetan Europako eta munduko txapelketan ez dute parterik hartzen «Euskal Herriko Selektio gisa joaterik ez dugulako. Talde modura bai, joan gaitzke, baina guk selektioari ematen diogu lehentasuna». Gaineratu dutenez, «talde bezala joanez, Espainiako federazioari emanen lieke eta ez dago, dagoen bakarra Euskal Herrikoa da. Eta ez goaz gurea dena kanpo-koari ematera» eta hau ikusita egiten duten presio modua da ez parte hartzea. European zehar antolatzen duten torneo batera joateko ideiatan dabiltza gazte hauek, Irlandara edo. «Hangoak egiten dituzten tiraldiak ikustekoak dira gero! Guk egin dugun luzeena 25 minututakoa izan da». Azaldu zutenenez, lurra zenbat eta beratza goa izan, orduan eta luzeagoak izaten dira tiraldiak, gehien irauten duenak irabazten du. Lur gogorrean berriz hautsi-urratua berahalakoan egiten omen da.

Orain Eukal Herriko Txapelketan murgilduta daude eta lau sailetan hartuko dute parte: 560, 600, 640 eta 680 kilokoetan. Itxaropenik handiena 560 kiloko sailean duten arren, denetan ere zortea izan dezatela opa diegu.

GARAIPIEN ZERRENDA ▶

1994. URTEA

▶ Nafarroako Txap. 2. maila (640). Txapeldun.

1996. URTEA

▶ Nafarroako Txap. 640 kilo. Txapeldun.

1997. URTEA

▶ Nafarroako Txap. 600. Txapeldun.
680. Txapeldun.
▶ Euskal Herriko Txap. 600. Txapeldun.
▶ Munduko Txap. 600. Brontzezko domina.

1998. URTEA

▶ Nafarroako Txap. 640. Txapeldun.
680. Txapeldun.

▶ Euskal Herriko Txap. 640. Txapeldun.
680. Txapeldun.

1999. URTEA

▶ Euskal Herriko Txap. 560. Txapeldun.
600. Txapeldun
640. Txapeldun.
680. Txapeldun.
▶ Munduko Txap. 560 klub. Brontzezko domina.
560 est. Brontzezko domina.
600 est. Urrezko domina.

2001. URTEA

▶ Euskal Herriko Txap. 560. Txapeldun.

2002 ETA 2003. URTEAK

▶ Euskal Herriko Txap. 560. Txapeldun.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Uzturpe ikastolaren eguna. Egun osoan, herrian.
Leizta. EHNA egiteko aukera. 11:00etatik 14:00etara, udaldebeko I. solairuan.
Tolosa. Dastaketa, haur jaia eta kontzertua. Egun osoan. Irazki elkarte kulturantzaren urteurrenaren baitan.
Tolosa. Laborde-Labayen eta Canguros enpresen futbol partiduak Amarozen, 15:30ean.

HITZA TXAPELKETA

Gaur (etorkizunekoak, Beotibar, 11:00).
Errazkin-Errarte/ Zubieta-Retegí.
Elurbe-Garmendia/ Larralde-Arrastoa.
Gaur (alebinak, Alegia, 16:00).
Aizpuru-Aizpuru/ Senperena-Goitia.
Arruti-Otaegi/ Urretabizkaia-Karasatorre.
Gorostidi-Gallurralde/ Azketa-Muñoz.
San Sebastian-Kastro/ Egiguren-Galarraga.
Gaur (infantilak, Aduna, 16:00).
Olaetxea-Ulanga/ Esnaola-Esnaola.
Lasa-Ezkurdia/ Iraola-Iraola.
Agirrezabala-Arakistain/ Gaztañaga Aizpuru.
Olazabal-Urruzola/ Aldalur-Otamendi

JAIK

Anoeta. Festa alternatiboak: kalejira Argindegira, sega apustua herriko hiru bikoteran artean, trikitalari eta bertsoariak alaituta; Selektah sound sistem.
Anoeta. Festak: VII. Eskuzko Pilota Herri txapelketako finalak; herriko artisten erakusketa; Basagaini buruzko erakusketa; txirringuluri lasterketa; DJ Bull...



TSST bi autobus Saharara

TOLOSALDEA ▶ Atzo gauean abiatu ziren Tolosatik Alacantara TSST enpresak Sahararentzat emandako bi autobusak. Eskualdeko bi gidarik eraman zituzten, Tolosaldea Sahararekin elkarteak jasotako ordenagailu, arropa, zapata, betaurreko eta materialarekin. OLAIA ESKITXABEL

MUSIKA

Alegia. Hiru talde Gaztetxean. 22:30ean.
Tolosa. Akauzate eta Atom Rhumba. 22:30ean, Bonberenean.
Tolosa. Udal Musika Eskolako metal eta egurra taldeak. 19:00etan, Pablo Gorosabelen.

TOLOSALDEA KUP

Gaur.
▶ 13:00: Ikatza-Errekalde.
▶ 13:45: Maskor-Yogurines.
▶ 14:30: Trans. Escol-Kafe Iruña.
▶ 15:15: Neskak-Orbela.
▶ 16:00: Bikutz-Asteasuarra.
▶ 16:45: Ieltxu-The apalantx.
▶ 17:30: Kontra kien-Romero.
▶ 18:15: Kupela-Magrebi.
▶ 19:00: Enara-Recre. Juerga.
▶ 19:45: Juvenil-Amaroz bue.

▶ 20:30: Santos hara-Pl.Nueva.
▶ 21:15: Egoki-Itzul.

Bihar.

▶ 13:00: Lekukik-Amaroz.
▶ 13:45: Ioniko-Azkar.
▶ 14:30: Hawai-Izarpe.
▶ 15:15: Lauetan pix-Bonbero.
▶ 16:00: Ordago-Iñaki Falkon.
▶ 16:45: Mattin Gaizt-Txanpa.
▶ 17:30: Eguzki-Ekaintz.
▶ 18:15: A ke no-Elorri.
▶ 19:00: Begi gorri-Garikoitz.
▶ 19:45: Wasper-Txiki taberna.
▶ 20:30: Kupelzaleak-Gorro team.
▶ 21:15: Recreativo de Juerga-Azkar.

ZINEMA

Tolosa. *El castigador.* 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Juan Kortajarena (Villabona-Amasa). Gero eta gazteago zaude! Zorionak ebekoen partetik, Unai, Haritz, Jokin eta Harriet bereziki.



URTE ASKOAN
Katalina Karrera. Gaur urteak betetzen ditu. Zorionak bere familiarren partetik.




URTE ASKOAN
Aupa, Aritz. Zorionak Garikoitz, ama eta aitaren partetik.



URTE ASKOAN
Aitor Gogortza Goikoetxea (Usabal auzoa). Gaur 8 urte. Pilotari handia egina zaude! Aita, ama eta ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Garazi Astrain (Altozo). Gaur 3 urte. Ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Aitana Davila Zaldúa. Astelehenean urtebete. Zorionak maiztasunez bere aitona-amona Rufi eta Danielen partetik.



URTE ASKOAN
Asier Mujika (Iruira). Gaur 3 urte. Zorionak Maialen eta gurasoen partetik.



AGURRAK ▶
Leo Esteban Nieto.

Egurez egun, urtez urte, bizitza guztian jo ta ke, bidea eginez iraultzaroko prest. Maite zaitugu. Eider, Ekaitz, Minde eta Ibarroka iheslariak. Dispersiozaleak hitzailak.

psikomotrizitatea
psikologia

- Psikomotrizitate atzerapena
- Portaeraren aldaketa
- Blokeo emozionala
- Arreta zailtasunak
- Hiperaktivitatea eta inhibizioa

P.Gorosabel, 40-18
TOLOSA • 943 69 82 65
mug.: 626 176 522

zuhatzki
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, I Txarama auzoa • 20491 **Leaburu**

ZUTE

2017

DENDA HAUEN
Tolosaldeko HITZAren
LAGUNTZAILEAK DIRA
Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur
- Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre Ilepaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri Berezikiak
- Factory
- Elite Kiroak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarribar Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kiroak
- Muebles Garces
- Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815 Azpiko Arropa
- Amaia Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Etojutegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihoak
- Kanikak arropa denda

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN
%5*-eko
BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETETAN.
(Martxoetik ekainera)
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

*Promozio hau ez zaie beste beharpenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.



OLAIA ESKITXABEL

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

HITZAK 7.500 harpidedun ditu gaur egun, hala ere gehiago behar ditu proiektua sendotu eta produktu berriak sustatzeko eta sortzeko; egin zaitetz harpidedun

ZER IRUDITZEN ZAIZU HITZA? ▶



JUANXO AGIRRE
TOLOSA, ARANZADI
«Hainbeste herri buki eta hain sakabanatuak izanik eskualde batean, HITZA da bitzen gaituen tresna on bat da»



MARTA AGIRREZABALA
ALTZO
«Etxetara iristen dakien lehen egunkaria, bertakoa eta gertukoa, hizkera xumea erabiltzen duena»



FATIMA GARAIALDE
TOLOSA
«Oso pozik gaude inguruko albisteak ematen dizigulako eta euskaraz irakurtzen erakusten digulako»



NEREA ALIAS
ANOETA, TELEBISTA AURKEZLEA
«Beharrezkoa den zerbaite ikusten dut, Tolosaldean eta Euskal Herrian euskaraz bultzatzeko baliabidea»



JUAN KRUTZ IGERABIDE
ADUNA, IDAZLEA
«HITZA, norberaren auzora, norberaren ebera hurbiltzeko modu bat da, gertuko inguru hori hobeto ezagutzeko»



XABI FERNANDEZ
IBARRA, BELA TXAPELDUNA
«Euskaraz irakurtzeko oso ondo dago; jende askok irakurtzen du eta Tolosaldeko albisteak jasotzeko aproposa da»



ELI NOSELLAS
IBARRA, SENDI EKINTZA-ALLURR
«Bere beharra dut; dendara iritsi, zabaldu eta lehen gauza HITZA irakurtzea izaten da, inguruko herri izateko»



JESUS M. ORBEGOZO
ABALTZISKETA, ALKATEA
«Gero eta gehiago interesatzen zaigu gertuko informazioa eta ez urrutikoa; HITZA horixe egiten du»



GLORIA IRURTIA
LEITZA, JUBILATUA
«Hemengo bizitzari buruzko egunkaria da HITZA, horregatik gustatzen zait irakurtzea»



OLATZ ARIZMENDI
LEITZA, AURREERA
«Herriko eta inguruko albiste ttikiak jakiteko eta ezagutzeko beharrezko modua iruditzen zait HITZA»



JOSU OTAÑO
IRURA
«Gustura hartzen dugu eta bere beharra ikusten dugu hemengo herri asko ematen duelako, gehiago dakigulako»



MIKEL SAIZAR
IBARRA, FUTBOLARIA
«Ondo dago; herrietako gauzez enteratzeko eta euskaraz bultzatzeko interesgarria dela iruditzen zait»



MILLAN TELLERA
ALBIZTUR, BERTSULARIA
«Eskualdeko herrietako informazio polita eta atsegina eskaintzen du; elkarren berri jakiten dugu orain»



PILI HERAS
TOLOSA, IRAKASLE OHIA
«Gustura ikusten dut; xumea da orri gutxi duelako, baina interesgarria inguruko herriak dakartzalako»



IKER GALARTZA
TOLOSA, AKTorea
«Aproposa eta beharrezkoa iruditzen zait inguruko albisteak jabetzeko; egunero irakurtzen dut gustura»



ARMANDO ROCA
TOLOSA, ATLETA
«Beste egunkariak eskaintzen ez dituzten informazio gertukoa, gustukoa eta interesgarria ematen du»

HARPIDEDUNAK ▶

HERRIZ HERRI

- Abaltzisketa. 38.
- Aduna. 20.
- Albiztur. 37.
- Alegia. 320.
- Alkiza. 75.
- Altzo. 76.
- Amesketa. 211.
- Anoeta. 335.
- Asteasu. 100.
- Baltarrain. 22.
- Belauntza. 42.
- Berastegi. 172.
- Berrobi. 42.
- Bidegoian. 177.
- Elduain. 29.
- Gaztelu. 43.
- Hernialde. 120.
- Ibarra. 703.
- Ikaztegia. 44.
- Irura. 218.
- Larraul. 12.
- Leaburu. 49.
- Lizartza. 204.
- Orendain. 205.
- Orexa. 13.
- Tolosa. 3.078.
- Villabona. 710.
- Zizurkil. 356.
- Besterik. 328.

7.500 HARPIDEDUN GARA, ETA ZU?

Hasieratik herritarren harrera ona jaso du eskualdeko euskarazko egunkariak; harpidedun kopurua handituz doa

Lehen herri egunkaria 2001-eko abenduaren 18an sortu zen. Tolosaldean *Egunero* izenarekin. Aurretik bailara batean astean sei egunez banatzen zen euskarazko herri egunkariak ez zegoen Euskal Herri osoan. Lehen asteetan eskualdeko 28 herrietako buzoi guztietan

banatu zen doan, biztanleek ezagutu zezaten. Herritarren-guadi oso gertuko informazioa ematen jarraitzen duela ikusten zuten gizarte, kultura, kirola, politika, ekonomia eta bestelako gertuko albisteak, elkarrizketak, erreportaia, iritzak... Horrekin batera publikatzea, agenda, zorioren agurrak eta te-

lefono interesgarriak argitaratzen ditu egunero. Hori ikusita, mila-lagunek eskatu zuten egunkaria etxeko buzoian jasotzea. 2003ko otsailaren 20an *Egunero* izenarekin eta bere izenarekin jarraitu zuten bere egunkaria kalearatu. Tolosal-

deko eguneroko informazioak ez zuten etenik izan. *Galtzaundi* mantentzea erabiliz, lehen egunetan aldizkari neurrian eta ondoren egunkari neurrian. 2003ko martxoaren 25etik Tolosaldeko HITZA izenez kalearatu zen eskualdeko herri informazioa. Gaur egun Tolosaldean



Harpidedunek etxeko buzoian jasotzen dute egunero HITZA. JAKINE ASPIBIA

Leizaldean denei orangoz



Aresoko herria; Leizaldean hasi da banatzen HITZA. JAKINE ASPIBIA

Maiatzaren 21etik jasotzen ditu HITZA Leizaldeko herriak eta bertan banatzen da doan asteartetetik igandera. Leizak 2.955 biztanle ditu eta %90a euskaldunak dira. Aresok berri. 294 biztanle ditu eta %98a euskalduna da. Lehen aste hauetan Leizta eta Aresoko buzoi guztietan banatzen da, beraz 1.000 ale in-

guru izango dira. Ekainaren 28tik aurrera ordea, hala eskaintzen dutenei bakarrik banatuko zate HITZA. Tolosaldeko eta Leizaldeko HITZA jasotzeko asteburu honetan banatuko diren kupoak bete eta HITZAren egoitza (Leizako udal-txean) entregatu edo bestela telefono honetara deitu behar da 943 30 43 46. ▶

HITZA

eskualdeko plaza

- ▶ Interesgarria
- ▶ Zabala
- ▶ Parte-hartzailea
- ▶ Baterakoia

Egin zaitez HITZAren harpidedun!

HITZA egunkaria goizero zure etxeko buzoian jasotzeko gain, harpidedun izateak dituen abantailak gozatzeko aukera ere izango duzu.

HITZA egunkariak bere harpidedunen artean zozketak, eskualdeko komertzioetan beharpenak... eskainiko ditu.

943 30 43 46

▶ Harpidedun sotoa / Aresoko telefonoa: 94304346 (lehenengo 09:00etatik 20:00etara)
▶ Tolosaldeko IF 00000413 (09:00etatik 13:00etara)

HITZAn izena emateko arrazoiak

1 Informaziorik zabalena. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK ematen du bi eskualde horietako informaziorik zabalena, egunero zortzi orrialde ematen dituelako. Informazio gehien emateaz gain, azkarren ere ematen du. Eta irakurleek inkesta batean esan zuteenez, egunkaria «plurala» da eta «ona» da.

2 Egunkaria etxera. HITZAREN enpresa argitaratzaileak ahalegin berezia egiten du egunero harpidedunekin, hauei egunkaria etxeraino edo eskatutako tokiraino ematen dielako, banatzaileen bidez. Egunero 7.500 ale horrela. Ahalegin handia eskatzen du horrek, baina harpidedunei zerbitzu ona ematea ezinbestekoa da.

3 Euskararen normalizazioa. Egunero hainbat mila pertsonak euskaraz irakurtzea lortu du HITZAK. Hizkuntza irakurterraza erabiltzen du. Orain arte ez zen horrelakorik lortu. Hau sekulako aurrerapauso da euskararen normalizatorako. Tolosaldeko eta Leitzaldeko herritarrek euskaraz irakurtzen ohitzen baititu.

4 Aurrera jarraitzeko bultzada. Gero eta harpide eta irakurle gehiago izan, proiektua sendoa goa izango da, erreferenzialagoa izango da informatiboki eta komertzialki. Komunikazio proiektu honek beste hainbat produktu sustatzeko eta sortzeko aukera izango ditu HITZAK harpide gehiago izanda.

HARPIDEDUNEI ABANTAILAK

Egutegi bat informazio interesgarriarekin eta autoan jartzeko eranskailua jaso dute opari gisa, eta Tolosako 35 dendatan beherapenak dituzte, adibidez



Sustapeneko hainbat produktu: egutegi-agenda, dendetako beherapenak, zozketak (Shuynako sari irabazlea) eta mahaiko egutegia. HITZA

HITZAREN harpidedun laguntzailea izateak baditu bere abantailak.

OPARIAK

Eranskailua. Hitzak autoan jartzeko eranskailuak banatu zituen abenduan. Eskualdeko egunkariaren irudia eta kolorea agertzen da bertan. Harrez gero harpidedun askoren autotetan ikus daiteke.

Egutegia. Abenduaren buka-

eran baita ere, poltsikoan eramateko moduko eskuko egutegia banatu zen harpidedunen artean. 56 orritan informazio interesgarri ugari eskaintzen du egutegi honek: Tolosaldeko autobus eta tren ordutegiak, urte osoko guardiako farmaziak, telefono interesgarriak eta telefono zenbakiak idazteko agenda txiki bat.

Mahaiko egutegia. Urte bukaeran banatu zen mahai gainean jartzeko egutegi praktiko

bat. Leku askotan ikus daiteke egutegi hau.

ZOKKETAK

Produktuak. Harpidedunen artean hainbat zozketa egiten dira: pilota eta zinemarako sarrerak, diskoak, mendi irteerak eta herriko dendetako hainbat produktu (ileapaindegi, kirol denda, gozotegi, estetika zentroa, altzari denda, afariak, aseguroak...).

BEHERAPENAK

Dendak. Tolosako Igarondo elkartereko 35 dendak eta HITZAK lortutako akordioari esker, denda horietan HITZAKO harpidedunek %5eko beherapena dute, eskura ordainduta, beste beherapenik gabe. 35 denda horien artean denetatik dago: arropa dendak, oinetakoak, opariak, kirol dendak, ileapaindegiak, tindategiak, altzariak, elektragailuak, leihoak...

BABES HANDIKO KOMUNIKAZIO PROIEKTUA

Galtzaundi eta Bertakorekin batera, 77 gizarte eragile dira bazkide enpresan

Komunikazio proiektu honek gero eta babes handiagoa dauka. Eragile ugari ditu bazkide, bi sortzaileekin batera. Bestalde erakundeen laguntzak jasotzen ditu.

Enpresa. Tolosa Herria Hedabideak S.L. da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria argitaratzen duen enpresa. Hala ere, izaera soziala du, hainbat gizarte eragile ere enpresako bazkide izanik. Enpresak hiru zutabe nagusi ditu: Bertako Hedabideak (*Berria* kaleratzen duen EKT enpresaren ordezkarria, %40a du), Galtzaundi Euskara Taldea, %30a du) eta gizarte eragileak biltzen dituen Tolosaldeko Berriak kultur elkarteak (%30a).

77 gizarte eragileak. Tolosaldeko hainbat elkarte, ikastetxe, enpresa, talde dira bazkide.

▶ **Sektoreak:** ikastetxeak daude (publikoak, pribatuak eta ikastolak), euskaltegiak, kirol eta kultur elkarteak, gazte taldeak, enpresak, langileak...

▶ **Nola hartzen duten parte:** urtean behin batzarra egiten dute eta administrazio kontseilurako kideak aukeratzen dituzte.

▶ **Parte hartzeko zer egin:** gutxienez 150 euroko partaidetza erosi behar dute, behin bakarrik jartzen dena. Deitu 687 53 02 58 telefonora.

Erakunde publikoak. Hauek dira diru laguntza ematen dutenak.

▶ **Udalak.** Ia eskualdeko guztiek laguntzen dute (azken orrian agertzen dira).

▶ **Aldundia.** Laguntzen du.

▶ **Eusko Jaurlaritzan.** Laguntzen du.